

---

[URUMEA](#)

[Txotx denboraldia](#)

# Urumeatik Nazioartera, sagardoak pasa izan ditu hainbat itsaso, lurralde eta frontera

Kronika - Erredakzioa 2020-01-18 00:00



Sagardo Forumaren aurkezpena egin zen, Orona Ideon.

Sagardoak, izugarritzko hazkundera izan du munduan, bai ekoizpenean zein turismoan. Hau kontuan harturik, Sagardo Forumak hemengo sagardoa eta kultura nazioartean zabaltzeko.

Azken urte luzetan, sagardoak hazkunde nabarmena izan du munduan, ekoizpenean zein turismo arloan. Hau jakinda, Sagardoaren Lurraldeak, hemengo sagardoa eta kultura, nazioartean kokatzeko prozesua abiarazi zuen, 2017an. Aurtan, Euskal Herriko mugetatik kanpoko hedapenari jarraipen eman dio, jarduera ugarirekin.

Aurreko urtean, emaitza esanguratsuak sortu zituen aipatutako nazioartekotze ahalegin horrek, Ciderlans, Makers & Lovers sarea hain zuzen. Urriaren II. Urteko topaketa egin zuten kideek, Herefordshiren (Ingalaterra). Europako 20 ordezkari batu ziren, eta sagardoaren kultura eta turismoa elkarrekin sustatzeko proiektua jarri zuten abian. Eta gaur egun, sarean sagar eta sagardoari sendoa lotutako hamar lurralde daude: Gales, Armagh, Asturiak, Britania, Alemania, Mostviertel, Norvegia, Herefordshire eta Euskal Herria.

Astigarragako Sagardoetxeak eta Herefordshireko Sagardo Museoak, proiektu bat abiarazi dute, sagarraren eta sagardoaren kulturari buruzko argazkiak eta dokumentalak elkarren artean partekatzeko asmoarekin. Eta euskal kultura eta sagardoa zabaltzeko asmo honekin, azaroan Sagardo Forumak sustatzeko promozio bidaia egin zituzten ordezkariak, bi eremu bisitatuta; Alemaniako Frankfurteko Cider Word Azoka eta bestetik, Ingalaterrako Gloucestereko CraftCon hitzaldia.

Martxoan berriz, Astigarragako Udaleko eta Sagardun Partzuergoko ordezkariak sagardoari buruzko Europako azoka garrantzitsuenetako batean izan ziren, «esperientzia aberasagarria izan zen, Frankfurten azoka baten antolakuntza eta funtzionamendua ezagutzeko aukera izan baigenuen». Egonalditik ateratako irakaspenak lagungarriak izan dira, «Sagardo Forumaren funtzionamendua definitzeko».

II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa Europako txapelketa garrantzitsuenetako bat bilakatu da, 2019an ia 200 sagardok hartu zuten parte.

## **Euskadi ohorezko gonbidatu, 2020ko Cider Worlden**

Europako egonaldietan ikasitakoak eta praktikan jarritakoak emaitzak ekarri ditu; Euskadi, 2020. urtean ohorezko gonbidatua izango da Cider Worlden. Horrek eraginarri du, sektoreko profesionalak hainbat nazioarteko sagardoak

# Kronika.eus

Dobera Euskara Elkartea

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika[ABILDUA]kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

- [AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [ANBOTO](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [AIURRI](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GOIENA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)  
[KARKARA](#) [MAXIXATZEN](#) [PLAENTXIA](#) [ALEA](#) [28 KANALA](#) [ANTXETA](#) [BARREN](#) [ERLO TELEBISTA](#) [GEURIA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#)  
[KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [NOAUA](#) [DEUSTUALDEA PREST](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#) [AMEZTI](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)